


eman ta zabal zazu



***Eva Ferreira García***

***Hauteskunde  
programa***

***2025 - 2030***

*Unibertsitatea  
gizartearen bihotzean,  
pertsonek  
unibertsitatearen bihotzean*

***#evaehu2030***

<b>IKASLEGOA</b> .....	<b>3</b>
<b>IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK</b> .....	<b>6</b>
<b>TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK</b> .....	<b>9</b>
<b>IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA</b> .....	<b>11</b>
<b>IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA</b> .....	<b>15</b>
<b>KULTURA ETA GIZARTEA</b> .....	<b>20</b>
<b>EKONOMIA ETA PLANIFIKAZIOA</b> .....	<b>22</b>
<b>AZPIEGITURAK ETA JASANGARRITASUNA</b> .....	<b>24</b>
<b>EUSKARA</b> .....	<b>28</b>
<b>KOMUNIKAZIOA</b> .....	<b>30</b>
<b>NAZIOARTEKOTZEA</b> .....	<b>32</b>
<b>ERALDAKETA DIGITALA</b> .....	<b>35</b>
<b>BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA GIZARTE KONPROMISOA</b> .....	<b>37</b>

**"... aniztasunean edertasuna dago, baita indarra ere"**

Maya Angelou (Misuri, 1928 - Ipar Carolina, 2014),  
idazlea, poeta, eskubide zibilen aldeko ekintzailea

## IKASLEGOA

Unibertsitate esperientzia inklusiboa eta aktiboa sustatuko dugu, ikasleentzako aurrekontuari buruzko erabakiak hartzeko aukerekin, etxebizitza eskuragarriekin eta garraio hobetuarekin, ongizate mentaleko zerbitzuekin, malgutasun akademikoko programekin eta lanbide, kirol eta tokiko eta nazioarteko kultura garapenerako aukerekin.

- **Aurrekontu parte hartzailea:** ikaslegoaren eskura jarriko dugu hiru campusetan kultura eta kirol jarduerak antolatzeke erabiltzen den aurrekontuaren % 50a.
- **Ostatua:** unibertsitate ostaturako sarbidea hobetzeko irtenbideak bilatuko ditugu eta egoitza berriak bultzatuz, OSTATU eta Ostatua Familietan bezalako programak indartuko. Halaber, Etxebizitza Solidarioen programa indartuko dugu erakunde publikoekin eta gizarte erakundeekin lankidetzan.

- **Garraioa:**
  - Garraio publikoa indartuko dugu hiru campusetara iristeko modu nagusi izan dadin, eta campusen arteko loturak hobetzeko.
  - Donostiatik Leioarako autobus linea bultzatuko dugu, eta garraioa zerbitzu publikoaren barruan ohiko linea izan dadin lan egingo dugu.
  - Eskuduntza duten erakunde publikoekin lankidetzan arituko gara, Donostia Bilborekin eta Vitoria-Gasteizekin lotzen duten ohiko linea batzuk Ibaetako campusean geltokia izan dezaten.
- **Matrikularen prezioa murriztea:**
  - Matrikulen prezioa aztertzea proposatuko diogu Eusko Jaurlaritzari, batik bat lehen matrikularen prezioa ahalik eta gehien murrizteko eta ondorengo matrikulen egoerak aztertzeko.
  - Matrikula ordaintzeko epeak aldatzea aztertuko dugu, ordaintzeko erraztasunak emate aldera.
- **Ikaslegoaren ongizatea:**
  - UPV/EHUren Entzute eta Erantzute Sarea indartuko dugu ikasleen ongizatea sustatzeko, kolaboratzaileen kopurua bikoiztuz eta prestakuntza eskaintza berritua izan dezaten.
  - Arreta Psikologikorako Zerbitzua indartuko dugu, eta Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua egungo errealitateetara egokitu; adibidez, haren izena aldatu eta Premia Bereziak Dituzten Pertsonentzako Zerbitzua izendatuko dugu.
  - Emakumeen higienarako produktuekin hornituko ditugu komunak.
- **Ikasgeletarako sarbidea:** ordu tarte zabalagoan irekita dauden ikasgelak jarriko ditugu ikasleen eskura, beti ere aro eta epe zabalagoetan irekiko direla bermatuz, batik bat azterketa garaian.
- **Malgutasun akademikoa:** ikasketetan malgutasun handiagoa eskainiko diegu, batetik, lanean diharduten eta, bestetik, bizitza akademikoa eta ikasleen ordezkari batzuek bateratzeko zailtasunak dituzten ikasleei.
- **Partaidetza prozesuak:** ikaslegoaren eskura jarriko dugu berme demokratikoak eskaintzen dituen eta *software* librean eta kode irekian oinarritzen den unibertsitate partaidetzarako plataforma digitala.

- **Harrera egunak:** ikasle berrien harrera ekitaldiak indartuko ditugu, ikasle hasi berrien, beteranoen eta nazioarteko integrazioa erraztuko duten jardunaldi eta hitzaldi informatiboentz bitartez, beti ere campusetan jarduerak kultural eta ludikoak antolatuz.
- **Tutoretza eta bokaziozko orientazioa:** Berdinen arteko Tutoretza programa (BAT) indartuko dugu, ikasle berriaren integrazioa bultzatzeko eta ikasle beteranoaren jarraipena errazteko. Horrez gain, lanbide ingurunearekiko harremanak indartuko ditugu, tailerrak, enplegu azokak eta mentore profesionalak eskainiz.
- **Ikasle olinpiadak:** kirol, kultura eta aisialdi jarduerak batzen dituen lehiaketa ludiko bat jarriko dugu abian, ikasleek parte har dezaten, UPV/EHUko kide izatearen sentimendua sustatzeko.
- **Ikasleen elkarteak:** ikasleen elkarteak lagunduko diegu, haien diziplinartekotasuna sustatuz, eta estatuko eta nazioarteko lehiaketetan eta ekitaldietan parte hartzea erraztuko diegu. Bizitza akademikoaren eta ikasleen ordezkariaren arteko bateragarritasuna erraztuko dugu, kontziliazio neurriak hobetuz.
- **Kirol Programa Integrala (KIPI):** ikasleen artean bizimodu aktiboa sustatuko dugu, jarduerak fisikoa eta ongizatekoa barne hartzen duen kirol eskaintza zabalduz, eta errendimendu handiko kirolari berriak laguntza emanez.
- **Ikasleen jarduerak hedatzeko kanalak:** ikasleen jarduerak hedatzeko xedearekin hainbat kanal garatuko ditugu, horien artean sare sozialak.
- **Zurrunmurruei aurkako taldea sortzea:** UPV/EHUko ikasleek osatutako zurrunmurruei aurkako taldea sortuko dugu, ZAS-Zurrunmurruei aurkako estrategiaren baitan, kulturen arteko bizikidetzak sustatzeko.
- **Ikasletxeak:** Ikasleen II. Partaidetza Plana gauzatu dugu, bereziki lankidetzan eta sorkuntza bateratuan aritzeko gune berriak atonduz eta ikasleen ekimena sustatuz. Halaber, autokudeatutako espazioak jarriko ditugu Arabako eta Gipuzkoako campusetako Ikasle Kontseiluen eskura.
- **Ikerketa prestakuntza:** prestakuntza osagarria eskainiko dugu, ikasleen ikerketa bokazioa areagotzeko jakintza arlo guztietan.
- **Ebaluazio araudia:** ebaluazio araudia eguneratu dugu eta onartu zenezetik ikasi duguna aplikatu dugu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruzko egungo ezagutzan oinarrituta eta ikasleen feedbacka kontuan hartuta.
- **Ikasle Kontseiluak Zerbitzu Juridikoa erabili ahal izatea:** kanal bat irekiko dugu Ikasle Kontseiluko lehendakariak bere eskumeneko gaien inguruan txosten eskaerak helarazi ahal diezazkion UPV/EHUko Zerbitzu Juridikoari.

## IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK

Lan inguruneak hobetuko ditugu, non egonkortasuna, mailaz igotzeko aukerak, formakuntza, aitortza, kontziliazioa eta langileen promozioa lehentasuna izango diren. Soldata igoerak defendatuko ditugu, batik bat karreraren hasieran, baita 35 urte bete baino lehen egonkortzea ere.

- **Egonkortasuna eta promozioa:** egonkortasun goiztiarra bermatzen jarraituko dugu, akreditatutako langileak 35 urte bete baino lehen egonkortu ahal izateko, eta promozio plazen kopurua nabarmen handitzen jarraituko dugu, gutxienez eskainitako katedren eta irakasle osoen plazen kopurua bikoiztuz. Halaber, berehala eskainiko ditugu ikerketa eta irakasle plazak.
- **Lan egutegia:** Irakasle eta ikertzaileen opor egunak eta norberaren aukerako egunak eguneratu eta malgutuko ditugu, lan egutegia Administrazioako gainerako langileen egutegira egokituz, muga bakarria irakaskuntza betekizunak betetzea izango da.
- **Soldata hobekuntza orokorrak:**
  - Eusko Jaurlaritzarekin akordioak bultzatuko ditugu batetik, gaur egun zaharkituta dauden Ordainsari Osagarri Gehigarrien zenbatekoak eguneratzeko eta, bestetik, deialdiak eta horien ebazpena aurreratzeko, horrela horrela ordainketa bera ere aurreratuaz. Eskaerak kontratuaren lehen urtetik egin ahal izatea ere defendatuko dugu.
  - Irakasle eta ikertzaileen oinarrizko soldata baldintzak hobetuko ditugu, bereziki beste lan bateragarri ez duten lanaldi partzialeko langileenak eta langile hasiberrienak. Euskal unibertsitate sistemaren lege berriak soldata egokiak bermatu behar ditu ordezkoen kasuan eta karrera akademikoa hasten duten irakasle eta ikertzaile guztien kasuan.
  - Doktoratu aurreko eta ondoko kontratuen soldatak igotzeko lan egingo dugu, talentuaren erakarpina sustatze aldera.
- **Plantilla plana ratioak:**
  - Irakasle eta ikertzaileen plantilla plana garatuko dugu sailekin eta ikastegiekin, ildo nagusietatik abiatuta, beren estrategia propioa garatzeko gaitasun nahikoa duten sailak sortzeko helburuarekin.

- Aurreikusteko moduko plantilla egonkor bat sortuko dugu, sailekin adostutakoa, gutxienez % 10eko lasaierarekin jakintza arlo eta atal bakoitzean.
- **Kontziliazioa:** lana eta bititza pertsonala bateratzea erraztuko duten neurriak ezarriko ditugu:
  - Lan malgutasuna hobetuko dugu, irakasle eta ikertzaileek beren laneko eta familiako erantzukizunen arteko oreka mantentzeko laguntza neurriak ezarri, tutoretza telematikoa egiteko aukera barne, beti ere ikasleekin adostuta.
  - JARDUNen proposatuko dugu ikasturte batean 18 ECTSra mugatzea ikerketa talde batean dauden eta gutxienez urtebetez adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzian egon diren irakasleen gehieneko irakaskuntza gaitasuna.
  - Irakaskuntza kredituak gordetzeko aukera emango dugu, gerora aitorturiko irakats lanagatik kredituen murrizketa beste ikasturte batera transferituz (Gradu Amaierako Lanen (GRAL) edo Master Amaierako Lanen (MAL), doktorego tesien zuzendaritza, etab.) edo ikerketa/transferentzia/irakaskuntza merezimenduengatik, baldin eta adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeagatik gutxienez urtebeteko eszedentzia egiaztatu badaiteke erabili behar ziren ikasturtean.
  - Irakasle eta ikertzaileen ebaluazio prozesuetan, baimenen eta eszedentzien aldiak hartuko ditugu kontuan.
- **Izapideak sinplifikatzea:** egoitza elektronikoan ahal diren administrazio eta kudeaketa prozesu guztiak ezarriko ditugu, hala nola irakasleen plazak eta ordezkapenak eskatzea eta izapidetzea, ikerketa deialdiak eskatzea edo kudeaketa ekonomikoa izapidetzeko eskatzea, besteak beste. Horrela, jende guztiak jakin ahal izango du, denbora errealean, eskaera bakoitza izapidearen zein puntutan dagoen.
- **Ordezko irakasleak:** pertsona baten ordezko irakasleak lanaldi osoan kontratatu ahal izateko legezko aldaketak egin daitezela berriz ere eskatuko dugu; eta, aldi berean, sailei baliabide egonkor nahikoak emango dizkiegu, plantillakoak, figura horretara jotzeko beharra minimizatzeke.
- **EHUmagistri, lankidetzak eta aitortza erretiroa hartu ondoren:** UPV/EHUrekin kontratuz kanpoko lotura eredu bat ezarriko dugu, ekarpenak egiten jarraitu nahi duten langile erretiratuei aukera emango diena jardueretan parte hartzeko eta erretiroa hartu ondoren oinarritzko zerbitzuez gozatzeko.
- **Irakasle berriak:** ABIATU programa indartuko dugu, irakasle laguntzaile doktoreen prestakuntza programa, UPV/EHU lehenera urratsak laguntzeko eta gidatzeko.

- **Irakasle katedradunak:** eskainitako katedra eta irakasle osoen plaza kopurua, gutxienik, bikoiztuko dugu.
- **Ikertzaile berriak:** mentoring programa sortuko dugu ikertzaile gazteei doktoratu aurreko prestakuntzaren hasieratik beren karrera akademiko eta profesionala definitzen laguntzeko, kalitatezko prestakuntza ziurtatuz eta lan munduan eta mundu akademikoan integratzen lagunduz.
- **Ikerketa irakasleak:** ikerketa irakasleen plazak sartuko ditugu hurrengo EPEn (2025eko udaberria), eta, aldi berean, dagokion lehiaketa prozedura garatuko dugu.
- **Langile klinikoak:** langile kliniko elkartuen integrazioa unibertsitatean erraztuko dugu, eta, UPV/EHUren eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren arteko Ituna aldatuz, ospitaleetako langile iraunkorren baldintzak (soldata eta dedikazioa) hobetuko ditugu.
- **Harrobia sortzea:** harrobiko arazoak dituzten eremuetan jardungo dugu, dagoeneko eskaintzen diren doktoratu aurreko kontratuak nabarmen handituz eta irakasle laguntzaile doktoreen plazetan dauden bitarteko pertsonekin konpromiso politika ezarriz.
- **Jarduteko protokoloak:** premia bereziak dituzten ikasleak unibertsitatean gero eta gehiago sartzen ari direlako (adibidez, osasun mentaleko arazoak dituzten ikasleak) IRlek eta TEKAZELek esparru akademikoan aurre egin behar dieten egoera berezi ohikoenekin lotutako kasuistika identifikatuko dugu, eta kasu bakoitzean jarduera protokolo egokiak prestatuko ditugu.
- **Irakasle elkartuak eta Ikerbasque USLOra egokitzea:** irakasle elkartuen eta Ikerbasque bisitarien kontratuak USLOra egokitzea amaituko dugu, legezkoatasunaren barruan, prozesua oso erraza eta azkarra izan dadin.
- **Irakasleen araudia:** irakasleen araudia eguneratuko dugu, sailek promozio plaza bat baino gehiago eskatzeko aukera eskainiz eta generoaren aldagaia esleipen irizpideetan barneratuz.
- **Irakasle eta ikertzaileen lan poltsak:** sistema hobetuko dugu, digitalizazioan beste urrats bat emanez, esleipenak eta jarraipena errazteko, eta berehala ezarriko ditugu lan poltsak irakaskuntza unitateetan, hala eskatzen duten sail klinikoetan (pediatria; neurozientziak; eta dermatologia, oftalmologia eta otorrinolaringologia, besteak beste).
- **Etengabeko prestakuntza:** trebetasun bigunen edo *soft skill*-en eguneratzea sustatuko dugu, baita gaitasun digitalen prestakuntza ere, bereziki, zibersegurtasunaren eta adimen artifizialaren prestakuntza unibertsitate komunitate osoan, tresna teknologikoak modu seguruan erabiltzeko prestakuntza ziurtatuz eta haien potentzial handiena aprobetxatuz.



## TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

TEKAZELen plantilla nabarmen handitzeko eta lanpostuen balorazioa hobetzeko lan egingo dugu, etengabeko prestakuntzaren, nazioartekotzearen, ikerketaren eta transferentziaren erronka berriei lotutako langile espezializatuen lanpostuak gutxienik % 50 gehiago jarrita. Lan egonkortasunarekin, garapen profesionalarekin eta langileen ongizatearekin konprometitzen gara. Horretarako, behin-behinekotasuna murriztuko dugu, ohiko promozioa erraztuko dugu eta kudeaketa prozesu guztiak hobetuko ditugu. Horrek guztiak kontziliazioa optimizatzen eta unibertsitate komunitatea indartzen lagunduko digu.

- **Erreferentziako plantilla eta lanpostuen balorazioa:** erreferentziako plantilla definituko dugu, lanpostuen deskribapena eguneratuz prestakuntza, ikerketa, transferentzia eta nazioartekotze erronka berriei erantzuteko espezializazioa lortuz.
- **Plantilla handitzea:** zerbitzu estrategikoetan espezializatutako langileen plantilla % 50 handituko dugu, unibertsitateak prestakuntza, ikerketa, transferentzia eta nazioartekotze erronkei modu egokian aurre egin ahal izan diezaien.
- **Behin-behinekotasuna:** prozesuak amaituko ditugu behin-behinekotasuna % 8ra baino gutxiagora murrizteko, eta trantsizio denbora bermatuko dugu, eskuratutako ezagutza aprobetxatzeko eta zerbitzuan aldaketa nabarmenik ez izateko.
- **Lan hobekuntzak:**
  - Lan baldintzak hobetuko ditugu eta zerbitzu bakoitzaren beharretara egokitutako telelana sustatuko dugu, langileen bizitza pertsonala eta lan bizitza bateratzen lagunduz.
  - Unibertsitateko bulegoak eta zerbitzuak irekitzeko ordutegiak aztertuko ditugu, ahalik eta orekarik onena lortzeko zerbitzu publikoaren, eskura dauden baliabideen eta ingurumenaren jasagarritasunaren artean.

- **Langileak egonkortzea:** bi urtean behin deialdiak egingo ditugu bitarteko langileak egonkortzeko, behin-behinekotasuna murriztuz eta laneko jarraitutasuna bermatuz.
- **Promozioen Plan Integrala:**
  - TEKAZELen promozio erregularra ahalbidetuko duen plana ezarriko dugu, langileen talentua eta gaitasuna aitortuz.
  - Maila igoerak eta goi mailako heziketa zikloetarako B taldea ezartzea negoziatuko dugu, unibertsitatean garapen profesionalerako aukerak erraztuz.
  - TEKAZELen karrera profesionalaren eredu berriz diseinatuko dugu, haren garapena bultzatuko duten eskala berriak sortuz.
- **Administrazioa optimizatzea:** kudeaketa prozesuak optimizatuko ditugu burokrazia murrizteko eta eskuzko zereginak automatizatzeko, TEKAZELen egunerokotasuna sinplifikatuz.
- **Lan ongizatea:** estres maila handiko lanpostuen diagnostiko zehatza egingo dugu, hainbat faktore kontuan hartuta, hala nola lan karga, epe estuak eta giza baliabideen kudeaketa. Antolamendu aldaketak aztertuko ditugu, eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza psikologikoko zerbitzuaren laguntza eskainiko dugu.
- **Deskonexio digitala:** langileek lan ordutegitik kanpo desconexio digitala izateko duten eskubidea bermatzeko neurriak sustatuko ditugu, eta jardunbide egokien eskuliburu bat sortuko dugu.
- **Langile berriak:** harrera protokolo eta plan pertsonalizatuak sortuko ditugu lanpostu guztietan, langile hasiberriei lehen urratsetan laguntzeko eta gidatzeko.
- **Langile beteranoak:** *mentoring* plana egingo dugu, langile beteranoen irteera kudeatzeko eta haien ezagutzak eta esperientzia belaunaldi berriei transferitzeko.
- **Etengabeko prestakuntza:** espezializazio arlo guztietan lanpostuekin lotutako gaitasun espezifikoak eskuratzeko prestakuntza eredu bat eskainiko dugu, karrera profesionalari lotutako prestakuntza ibilbide bat garatuz.
- **Digitalizazioa:** teknologia berriei eta digitalizazioari buruzko prestakuntza sustatuko dugu, langile guztiak seguru eta eroso senti daitezen beren eginkizunetan tresna digitalak erabiltzeko garaian.
- **Pizgarri gehigarriak:** Ongizate Plan bat diseinatuko dugu eta pizgarriak eskaintzeko aukera aztertuko dugu, unibertsitate komunitate osorako.

## IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA

Unibertsitate prestakuntza berritzailea eta globala bultzatuko dugu, gizarte eta ingurumen erronkei aurre egiten dieten graduetatik hasi eta nazioarteko bikaintasun ereduko graduondoko eskaintzaraino; ikasketa dinamikoa, digitala eta eskuragarria sustatuko dugu euskal gizartearentzat eta nazioartearentzat.

- **Katedra sortzea:** UPV/EHUko hiru hezkuntza-fakultateen parte-hartzearekin, hezkuntza-katedra bat abian jartzea, hezkuntza-ikerketatik eratorritako ikerketa eta ezagutzaren transferentzia sustatzeko, EAEko hezkuntza-kalitatearen garapenean eta euskal gizartearen hezkuntzari buruzko eztabaida lasai eta gogoetatsuan eragin dezan.
- **Graduak:**
  - Euskal gizartearen zerbitzura dagoen graduoko prestakuntza indartuko dugu, ikasleak gizarte eta ingurumen erronkei i3 ereduaz hel diezaien sustatuz, hezkuntza berritzatzeko deialdi berri baten bidez. Deialdi horrek ikastetxe guztietan frogatutako eraginkortasuneko metodologia berritzaileak barneratzea bermatuko du. ENLIGHT aliantzari esker, graduoko prestakuntzan hezkuntza inklusiboagoa lortzeko sare batean parte hartuko dugu.
  - Eskaintza erakargarria bultzatuko dugu, adibidez, ENLIGHT nazioarteko lehen gradua hiri eta komunitate jasangarrien eremuan, eta nazioarteko titulazio bikoitzen eskaintza handituko dugu.
  - Prestakuntza dualaren eskaintza % 50ean handituko dugu, EHUduala eredu propioarekin, nazioarteko prestakuntza eskaintza berriak barne, baita lanbide heziketaren eta unibertsitatearen arteko prestakuntza ibilbideak ere, LH+EHU programa berriarekin.
  - Oinarritzko irakasgaietan laguntza indartuko dugu, errefortzu programak eta online ikastaroak eskainiz behar duten ikasleentzat. (0 ikasgaiak).
- **Graduondokoak:**
  - UPV/EHUk bertan, estatuan eta nazioartean duen goi mailako hezkuntzaren erreferente izaera sendotuko dugu, bikaintasuneko graduondoko eskaintza eguneratuaren eta dinamikoaren bidez. Gizartetik eta haren beharretatik hurbil dagoen eskaintza, adibidez Bioetika eta Biozuzenbideko unibertsitate arteko online masterra.

- Graduondoko nazioarteko ikasleen kopurua bikoizteko asmoz, UPV/EHUren presentzia eta ikusgarritasuna areagotuko dugu foro eta ekitaldi espezializatuetan, gure doktorego programak eta masterrak kalitatezko aukera gisa nabarmendu daitezzen.
- Gure nazioarteko bazkideekiko harremana estutuko dugu, eta aliantza estrategiko berriak egingo ditugu unibertsitateen arteko nazioarteko graduondoko programen eskaintza zabaltzeko, eta ekimen berritzaileak babestuko ditugu, hala nola HEFAK Eleaniztasunari eta Nazioarteko Hezkuntzari buruzko master bat garatzeko onartu berri duen proposamena.
- Doktorego programen mapa estrategikoa diseinatuko dugu doktoreen prestakuntzan bikaintasuna finkatzeko jakintza adar guztietan nahiz eremu berrietan, hala nola musikan, Musikene bezalako ospe handiko erakundeekin lankidetzan.
- Erasmus Mundus masterren kudeaketa birplanteatuko dugu haien administrazioa optimizatzeko.
- **Bizitza osoko hezkuntza iraunkorra:**
  - **Mikrokredentzialak:**
    - Prestakuntza ziurtatuari dagokionez, eskaintza sendotuko dugu, ezagutzaren adar guztietako ikastaro laburren bidez, eta 2.500 kredentzial baino gehiago ziurtatuko ditugu bi urteko epean, ehun sozioekonomikoarekin lankidetzan.
    - Kudeaketa arinduko dugu, proposamenak, zabalkundea eta ikasleen matrikulazioa egiteko sistema errazaren bidez.
    - Irakasleen eta ikasleen arteko ikaskuntza eta komunikazioa erraztuko ditugu, *software* librean (EHUon) oinarritutako sistemaren bidez. Sistema horrek sarbidea asko erraztuko die bai ikasleei bai kanpoko pertsonei, prestakuntza labur bat egiten dutenean, LDAP konturik gabe sartu ahal izateko.
    - Datozen bi urteetako prestakuntzak kudeatzeko, 2023an esleitutako Mikrokredentzialen Plana deialdiaren bidez lortutako finantzaketa erabiliko dugu, eta aurrera begira, deialdi publikotan aurkezten jarraituko dugu.
  - **Titulu propioak:**
    - Titulu propioak kudeatzeko eredia eguneratuko dugu, haien administrazio prozesuen eraginkortasuna hobetzeko eta, ondorioz, eskaintza beharretara denbora errealean eta modu lehiakorrean egokitu ahal izateko.

- 2023ko urrian onartutako irakaskuntza propioen eredu berria garatuko dugu, maila altuagoko titulu propioak ziurtatzen dituzten prestakuntza labor, modular, gehigarri eta metagarriak antolatzea bultzatuz.
  - **Esperientzia gelak:** euskarazko irakaskuntza eskaintza bultzatuko dugu; ikasleek mugikortasun akademikoa izateko aukerak aztertuko ditugu; eta belaunaldien arteko ikaskuntza aberasten jarraituko dugu, esperientzia geletako ikasleek graduoko eta graduondoko eskaintza ofizialean parte hartzeko aukerak bultzatuaz.
- **Hezkuntza berrikuntza:**
  - i3lab laborategi iraunkorren garapena bultzatuko dugu, i3 hezkuntza eredutik abiatuta egiten ditugun estrategia akademikoak titulazioetan orokortzeko asmoz: erronketan oinarritutako eta etorkizunera bideratutako hezkuntza, ikaskuntza zerbitzua, eta prestakuntza EHUduala.
  - Estrategia horiekin lerrokatutako eta kanpoko erakundeekin lankidetzan abian jarritako hezkuntza berrikuntzarako proiektuen kopurua % 25 handituko dugu.
  - Ikasgela birtualak, simulagailuak eta irakaskuntzarako errealitate areagotuko inguruneak sortuko ditugu; ikasgelen elektrifikazioa hobetuko dugu, gailu elektronikoak konektatzeko entxufeak instalatuz.
  - Laborategi birtualak jarriko ditugu martxan non ikaskuntza praktikoa errealitate areagotuko eta murgiltze inguruneen bidez egingo den, eta horrela ikasleek aukera izango dute haien trebetasunak ingurune konplexuetan praktikan jartzeko, eszenatoki errealisten bidez.
- **Unibertsitate Irakaslegoaren Prestakuntza Ikastaroak (UIPRE):**
  - Irakaslegoaren prestakuntza programa indartuko dugu, irakaskuntza berrikuntzako gaitasunak, hizkuntzak eta beste gaitasun garrantzitsu batzuk hala nola digitalak, hobetzeko.
  - Modalitate hibridoko ikastaroak eskainiko ditugu (aurrez aurrekoak campus bakar batean baina, denbora errealean, beste bi campusetan jarraitu ahalko direnak), SAE/HELAZek campusetako espazioetan instalatutako ekipamendu berriari esker. Horri esker, are plaza gehiago eskaini ahal izango ditugu, 2020-2024 aldian kopurua bikoiztu ondoren.
  - Irakasleen, sailen eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko modua sistematizatuko dugu, sortzen diren premiei erantzun hobea emateko, UIPRE eskaintza eguneratzeko urteroko prozesuen barruan.

- **Irakaskuntza modalitateak:** irakaskuntza hibridoko eta online irakaskuntzako aukera gehiago garatuko ditugu, bereziki masterreko eta doktoregoko programetan, lan egiten duten ikasleen beharretara egokitzeko eta bertako, estatuko zein nazioarteko ikasleak erakartzeko.
- **Zeharkako gaitasunak:**
  - Zeharkako gaitasunak (*soft skills*) eskuratzea sustatuko dugu, hala nola talde lana, lidergoa eta komunikazio trebetasunak, ikasleen prestakuntza osatuko duten jarduerak eta programak sortuz.
  - Gaitasun digitaletan eta, bereziki, zibersegurtasunean eta adimen artifizialean prestakuntza sustatuko dugu unibertsitate komunitate osorako, tresna teknologikoak modu seguruan erabiltzeko prestakuntza ziurtatuz eta haien potentzial handiena aprobetxatuz.
- **Adimen artifiziala:** ikasleentzako zein irakasleentzako prestakuntza programa abiaraziko dugu, adimen artifizialak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko, ezaugarri eta behar desberdinetara egokituta.
- **Partaidetzako pasaportea:** partaidetzako pasaportea ezarriko dugu, curriculumetik kanpoko partaidetza historia jasoko duena eta Tituluaren Gehigarri Europarrearantz islatuko dena.

## IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

III. Ikerketa eta Transferentzia Planari jarraituz, unibertsitate egiturak indartuko ditugu, finantzaketa bikoiztuz, laguntza eta kudeaketako langileak %25 handituz; komunikazioa eta prozesuak hobetuko ditugu, ikerketako eta ezagutzaren transferentziako aliantzak bultzatuz eta epe luzerako iraunkortasuna bermatuz, eta Osasun eta Hezkuntza arloei arreta berezia eskainiz.

Beste ikerketa eta transferentzia zentroekiko harremanak sustatuko ditugu, ikerketa azpiegitura sendo eta konektatua sortuz; talentua, ikerketa funtsetarako sarbidea, nazioarteko proiektzioa, graduondoko eskaintza eta administrazio eraginkortasuna biderkatuko ditugu.

Gainera, nazioartekotzearekin, lurraldera lotutako kalitatezko transferentziarekin, elkarlaneko ikerketarekin eta zientzia irekiarekin lotutako ekintzak areagotzen dituen programa aurkezten dugu, genero ikuspegia eta pertsonen eta taldeen aitortza kontuan hartuko dituen.

- **Ikerketaren finantzaketa:** ikerketara bideratutako aurrekontua bikoiztuko dugu, gure proiektu estrategikoen epe luzeko finantzaketa bermatuuz.
- **Ikerketaren eta ezagutzaren transferentziaren kudeaketarako eta laguntzarako langileak:**
  - Ikerketaren eta transferentziaren kudeaketarako eta laguntzarako langileen kopurua % 25 handituko dugu, eta, gainera, espezializazioa eta prestakuntza indartuko ditugu programa espezifiko bidez.
  - Prozeduren eraginkortasuna hobetuko dugu, ikerketa talde eta zentroyen eta campusen behar espezifikoerantzuteko.

- **Ikerketaren ebaluazioa:**
  - Ikerketa ebaluatzeko irizpideak, tresnak eta prozesuak berrikusiko ditugu, beste erakunde batzuekin lankidetzan, CoARA (Coalition for Advancing Research Assessment) ekimenaren esparruan.
  - Ebaluazio irizpide berriei buruzko kontzientziaziorako eta formaziorako ekintzak sustatuko ditugu, 2030erako ezarrita egon daitezen.
- **Ikerketa intentsiboko zentroak eta institutuak:**
  - Ikerketa Intentsiboko Zentro propioei eta Unibertsitate Institutuei aitortza eta denboran iraunkorra den finantzaketa emateko mekanismoak sendotuko ditugu.
  - Zentro berriak sortzea sustatuko dugu, Osasun eta Hezkuntza arloei lehentasuna emanaz.
  - Espazio berriak prestatuko ditugu eta daudenak egokituko ditugu ikerketarako ekipamendu berriak ezartzeko eta Ikerketa Intentsiboko Zentro propioak finkatzeko eta zabaltzeko, bereziki CFAA, EHU-QC, HiTZ eta PIE.
- **Nazioartekotzea:**
  - Nazioarteko deialdietan parte hartzeko laguntza indartuko dugu, arreta berezia jarriz Europakoetan eta, bereziki, Europako Batzordearen esparru programan. Horretarako, laguntza neurri zehatzak ezarriko ditugu bere core ekintzetarako, hala nola MSCA eta ERCetarako, urteko 10 milioi eurotik gorako itzulera lortzeko helburuarekin.
  - Ikertzaileen mugikortasuna sustatzen jarraituko dugu eta egonaldietarako finantzaketa handituko dugu; 2026rako, UPV/EHUn doktoratu aurretik eta doktoratu ondoren kontratatutako aldi baterako ikertzaile guztiek gutxienez hiru hilabeteko esperientzia izango dute nazioartean.
- **Irakasle eta ikertzaile gazte ez iraunkorrak eta talentua erakartzea:**
  - Garapen profesionala indartuko dugu, bai eta ikerketan lidergoa ere. Horretarako, ekintza espezifikoak egingo ditugu, helburu hauek lortzeko: plazak goiz finkatzea, ikerketa osagarrien aitortzan laguntzea, JARDUN programan kredituak hobeto aitortzea eta ikerketa proiektuetan lider izateko sarbidea eta pizgarriak sustatzea.
  - *Mentoring* programa sortuko dugu ikertzaile gazteei beren karrera akademikoa eta profesionala definitzen laguntzeko, doktoratu aurreko prestakuntzaren hasieratik abiatuz, kalitatezko prestakuntza ziurtatuz eta lan munduan eta mundu akademikoan integratzen lagunduz.



- Ikerketarako talentua erakartzeko programekin jarraituko dugu, unibertsitatean edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) egonkortzea sustatuz, eta, horrela, atxikipena zein aberriratzea ere bultzatuz.
- **Kalitatezko ezagutzaren transferentzia:**
  - Sektore sozioekonomikoarekiko loturak indartuko ditugu; % 20 spin-off eta start-up gehiago sortzea sustatuko dugu, ikertzaileek aplikatutako berrikuntza proiektuetan parte har dezaten sustatuz (JARDUNen aitortzak eta bestelako pizgarri neurriak hobetuz).
  - Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko lankidetzak bultzatuko dugu, ekintza zuzenen, unibertsitate-enpresa-gizarte ikasgelen eta unibertsitate-katedren bidez, berrikuntzan eta transferentzian dugun lidergoa sendotuz, gure gizartearen ongizatea hobetzeko.
  - Ezagutza Transferitzeko Bulegoa (OTC): OTC sendoa sortuko dugu, gure unibertsitateko komunitateari dibulgazioan, kontratazioan eta patenteetan laguntza eta orientazioa emateko; urtean 14 milioi euro arte handituko ditugu kontratuengatikoko diru sarrerak, eta % 25eko igoera sustatuko dugu patenteen erregistroan; plantilla handituko dugu OTCren jardura indartzeko hiru campusetan.
- **Ikasgelak eta katedrak:**
  - Unibertsitate-enpresa-gizarte ikasgelen eta gizartearekiko konpromisoa duten unibertsitate katedren formaziorako, ikerketarako eta transferentziarako jardura sustatuko dugu, ikasgelei laguntzeko deialdia indartuz eta unibertsitate-gizarte gela berriak sortuz.
  - Lankidetzarako sare bat ezarriko dugu ikasgelen eta katedren artean, gizartearekiko konpromisoan eta inpaktuan ezarritako helburuetan sinergiak lortzeko.
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) zentroak:** ZTBESko zentroekiko aliantzak indartuko ditugu, bereziki talentua erakartzera, funtsak eskuratzera, graduondoko programetan lankidetzak sustatzera eta nazioartean posizioa eta proiektzioa lortzera bideratutako neurriak bultzatuz.
- **Biomedikuntza eta Osasun Zientziak:**
  - Biomedikuntzako eta Osasun Zientzietako ikerketari buruzko diagnosia egingo dugu, sinergia gehieneko ikerketaren eta transferentziaren emaitzak dituzten arloak indartzeko, eta txoke-plan bat proposatuko dugu gainerakoentzat, Zientziarako Euskal Sistemarekin lankidetzan (bereziki Osasun Ikerketarako Zentroekin, Ikerbasquerekin eta Osakidetzarekin), talentua erakartzeko eta dauden taldeak dinamizatzeko formulak bilatuz.

- Zientziaren Dibulgazioa eta Jasangarritasunaren Hiria garatuko dugu, Osasun Globalaren (*One Health*) inguruko ikerketarako eta transferentziarako gunea izango dena, hiru campusetan presentzia izango duena, eta Itsasgunearekin eta ezagutzaren transferentziarekin lotutako beste egoitza batzuekin lankidetzan arituko dena.
- Neurri zehatzak proposatuko dizkiogu Euskal Osasun Sistemari, osasun langileek Unibertsitatearekin ikerkuntzan lankidetzari handiagoa izan dezaten eta osasun arloetako ikerketaren kalitatea eta kantitatea areagotzeko.
- Arlo klinikoan ikerkuntzan hasteko pizgarriak emango ditugu, ordutegien bateragarritasuna eta doktorego tesia osasun asistentzia lanarekin bateratzea erraztuz, ordutegia edo diru sarrera konpentsatzeko neurriekin.
- **Ikerketa kolaboratiboa, diziplina artekoa eta anitzekoa eta disziplinaz gaindiko ikerketa:** bikoiztu egingo dugu ikerketa kolaboratibora, diziplina artekoa eta anitzekoa eta disziplinaz gaindiko ikerketara bideratutako aurrekontua, unibertsitateko ikerketarako egituren arteko lankidetzari erraztuz eta ikerketa eta ekintzailatza kultura sustatuz, arazo konplexuei eta gizartearen intereseko arazoei ikuspegi askotatik heldu ahal izateko.
- **Gizarte Zientziak eta Humanitateak:**
  - Gizarte Zientzietako eta Humanitateetako taldeetan, bereziki Hezkuntzakoetan, ikerkuntzan jauzi kualitatiboa errazteko ekintzak abiaraziko ditugu, Europako esparru programaren deialdietan parte har dezaten bultzatuz.
  - Tradizio eta ikerketa intentsitate txikiko arloek deialdi propioetan parte har dezaten sustatuko dugu, eta, bereziki, sortzen ari diren taldeak eratzeko funtsak gehituko ditugu.
  - Ikerketa sustatuko dugu irakaskuntzaren berrikuntzaren esparruan. Horretarako babestuko ditugun proiektuak hauek dira: garatzen ari diren teknologiak eta pedagogia estrategia berriak erabiliaz irakaskuntza metodoak hobetuko dituztenak eta ikerketaren emaitzak unibertsitateko hezkuntza kalitatearen hobekuntzan aplikatzeko helburua dutenak.
- **Helburu estrategikoak:** Euskadirentzat estrategikoak diren helburuak lortzeko beharrezkoak diren diziplinak identifikatzeko plana jarriko dugu abian, eta arlo horietan punta-puntako ikerketa eta transferentzia bultzatuko dugu, 2030erako lehentasunezko helburuak lortzeko.
- **Zientzia Irekia:** datu instituzionalen gordailua jarriko dugu abian, ikerketaren emaitzak berrerabiltzea eta erreproduzitzea bermatuko duen azpiegitura egokia eskaintzeko. Irekian argitaratzen laguntzeko baliabideak handitzen jarraituko dugu, eta, aldi berean, kontzientziaziorako eta formaziorako neurriak ezarriko ditugu irakasleentzat eta ikertzaileentzat.

- **Genero ikuspegia:** genero ikuspegia bultzatzen jarraituko dugu deialdietan, eta UNIBASQekin lan egingo dugu ikuspegi hori hobetzeko ikerketaren eta transferentziaren osagarrien ebaluazioetan.
- **Pizgarriak:** sari eta aitortza instituzionalen bidez pizgarri sistemak ezarriko ditugu, ikertzeko eta kalitate handiko ezagutza transferitzeko ahalegina aitortzeko, nabarmentzeko eta ikusarazteko.

## KULTURA ETA GIZARTEA

Irisgarriagoa, konektatuagoa eta lurraldearekin eta munduarekin konprometituagoa den unibertsitatea bultzatzen dugu: arlo digitalean, nazioarteko rankingetan, egresatuen sareen sustapenean, eta bere inguruarekin eta bere proiektio sozialarekin lankidetzak aktiboan nabarmentzen den unibertsitatea.

- **Web orria:** UPV/EHUn presentzia digitala indartuko dugu web orri berria erabat ezarriz, eskuragarriagoa, informazio argi eta erakargarriarekin nazioko eta nazioarteko ikasleentzat, IRLentzat, TEKAZELentzat eta beste edozein agente kolaboratzaileentzat.
- **Rankingak:**
  - UPV/EHUn presentzia lehenetsiko dugu nazioarteko ranking akademiko ospetsuenetan eta bestelako aintzatespen jardueretan.
  - Erreferentzia globaleko azterlanetan UPV/EHUK duen ikusgarritasuna hobetuko dugu, eta ikerketa, berrikuntza eta irakaskuntzako lorpenak nabarmenduko direla ziurtatuko dugu.
- **EHUalumni:**
  - Ikasle ohien sareak indartuko ditugu, unibertsitateko enbaxadore gisa jardun dezaten bakoitzak bere esparru profesionalean.
  - *Networking* programak, ekitaldiak eta jarduerak sustatuko ditugu, UPV/EHUn eta ikasketak amaitu dituzten pertsonen arteko lotura sendotzeko, eta unibertsitatearen promozioan aktiboki parte har dezaten bultzatzeko.
- **Unikoak programa sendotzea eta indartzea:** ikasleen eta euskal kultura sarearen arteko lankidetzak bultzatuko dugu hiru campusetan, jarduera propioen, autogestionatuen, zein erakunde eta instituzio batzuekiko lankidetzaren bidez.
- **Eztabaida eta ideiak sortzea:** unibertsitate-gizarte elkarguneak indartu eta zabalduko ditugu, hala nola EkonoGune, EmaGune edo ZuzenGune, EHUnen eztabaidarako eta ideiak sortzeko gunearen baitan.

- **Ikusgarritasuna berrikuntzan:**
  - UPV/EHUren ikusgarritasuna areagotuko dugu berrikuntza eta teknologia transferentziaren esparruan, gure lurraldeko enpresekin lankidetzan aritzeko eta ingurune industrial eta teknologikoan balioa sortzeko duen gaitasuna nabarmenduz.
  - Unibertsitateak teknologia transferitzeko programetan eta *spin-off*ak, *start-up*ak eta patenteak sortzen parte har dezan bultzatuko dugu.
- **Lurraldearekiko lankidetzeta eta inplikazioa:** tokiko eta eskualdeko ingurunearekiko harremanak indartuko ditugu, tokiko gobernuekin (udalak eta foru aldundiak), Eusko Jaurlaritzarekin, enpresekin eta elkarteekin batera proiektuak sortuz.
- **EHU auzoetan:** EHU auzoetan programa jarriko dugu abian, hainbat auzo eta udalerrietara iristeko, eta, batez ere, zaugarritasun egoeran dauden auzo eta udalerrietara iristeko. Horretarako, kultura jarduerak eta dibulgazio hitzaldiak egingo ditugu auzo eta udalerrri horietako gai eta eremu interesgarrietan.
- **Gizarte proiektzioa:**
  - Unibertsitatean garatzen diren proiektu eta jarduera arrakastatsuei ikusgarritasun handiagoa emango diegu, bai irakaskuntzan, bai ikerketa eta transferentzian, eta arreta berezia jarriko dugu gizarte eremuan.
  - UPV/EHUren inplikazioa sustatuko dugu erantzukizun sozialeko proiektuetan, tokikoetan zein globaletan.
  - Inklusioarekin, jasangarritasunarekin eta ekitatearekin dugun konpromisoa indartuko dugu, ARRAKASTA, GAZTENPATIA, IRAKOOOP, Osasun Zientzia eta Zientzietako ikasleei laguntzeko eta zaugarritasun egoeran dauden ikasleei laguntza ekonomikoa eta orientazio akademikoa emateko programen bidez.
  - Tokiko eta nazioarteko ekitaldi akademiko eta kultural garrantzitsuak antolatu eta erakarriko ditugu, hala nola hitzaldiak, mintegiak, ikasle lehiaketak eta kultura jaialdiak, unibertsitatea esparru akademikoan eta kulturalean erreferentziazko zentro gisa kokatzeko.
- **Zientzia dibulgazioa:** zientzia dibulgazioko jarduerak indartuko ditugu, UPV/EHU sortutako ezagutza gure lurraldearekin partekatuzko: Kultura Zientifikoko Katedra, Zientzia Astea, Ikertzaileen Europako Gaua, edota Zientzia Zirkularra, besteak beste. Jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen kopurua bikoiztea izango da helburua.

## EKONOMIA ETA PLANIFIKAZIOA

Hazkunde eta jasangarritasun ikuspegiarekin, UPV/EHUrentzako finantzaketa sendoa bultzatuko dugu, baliabideak optimizatu, eraginkortasuna sustatu eta gizartean eta ingurunean eragin positiboa bermatuko duena.

- **Finantzaketa:** 2026an BPGren % 0,8ko igoera lortzea eta 2030ean % 1era iristea izango dugu helburu.
- **Finantza plangintza:**
  - Epe ertain eta luzerako finantza plangintza ezarriko dugu, UPV/EHUren iraunkortasun ekonomikoa bermatuko duena, baliabideen banaketa eraginkorra lehenetsiz.
  - UPV/EHUrekin batera proiektu estrategikoak, jarduera kulturalak edo zientifikoak finantzatzen lagundu nahi duten erakunde publiko eta pribatuen eta fundazioen babes eta mezenasgoa bilatzea bultzatuko dugu.
- **Kudeaketa:**
  - Gastuaren optimizazioan oinarritutako kudeaketa sustatuko dugu, irakaskuntza, ikerketa eta azpiegiturak bezalako funtsezko arloetara behar diren baliabideak bideratzen direla ziurtatuz.
  - Zentro eta fakultateen kudeaketa ekonomiko eta administratiboaren eraginkortasuna hobetuko dugu, eta baliabideen zati bat modu zuzenagoan kudeatzeko aukera emango diegu hauei.
  - Aldian aldiko barne eta kanpo auditoretzen sistema ezarriko dugu, unibertsitatearen finantza kudeaketa berrikusteko. Horri esker, baliabideen esleipenean hobetu beharreko arloak detektatu ahal izango ditugu, eta kudeaketa ekonomikoa etengabe hobetzeko kultura sustatuko dugu.

- **Baliabideak:**
  - Eskuragarri dauden baliabideen (ekonomikoak, azpiegiturazkoak eta giza baliabideak) erabileraren azterketa xehatua egingo dugu, eraginkortasuna hobetu daitekeen eremuak identifikatzeko.
  - Unibertsitateko kudeaketa arinduko dugu eraginkorragoa izan dadin, funtsen erabilera optimizatuz eta baliabideen administrazioan bikoiztasunak saihestuz.
- **Gobernantza:**
  - Estatutuak USLOra egokitzeko erreforma hasiko dugu, gobernantza sistema gardenagoa eta irekiagoa sustatuz eta erabakiak hartzeko organoetan ikasleen presentzia bereziki indartuz.
  - Estatutuen erregelamendu bidezko garapena ahalik eta adostasun handienarekin egingo dugu, araudi malgu baten bidez eta errealitate desberdinetara egokituta, kudeaketa arin eta dinamikoa egiten laguntzeko tresna gisa.
  - Gatazkak konpontzeko bitartekotza eta aurkakotasunik gabeko bideak indartu eta garatuko ditugu, bai eta bestelako zehapen hezitzaile edo konpontzaileak ere.
- **Jasangarritasuna:**
  - Jasangarritasuna eta kontsumoan aurrezteko planak ezartzen jarraituko dugu, bereziki energia, ura eta materialak bezalako arloetan.
  - Teknologia eta prozesu eraginkorrak erabiliko ditugu unibertsitatearen kostu operatiboak murrizteko, baliabideak askatuz proiektu estrategikoetan inbertitzeko.
  - Garraio publiko eta jasangarriaren erabilera sustatuko dugu, tarifa murriztuak lortzeko pizgarri eta akordioen bidez.
- **Eragin ekonomiko eta sozialaren ebaluazioa:** UPV/EHUK bere ingurunean duen eragin ekonomiko eta soziala ebaluatzen duten ikerketak egiten eta haiekin elkarlanean jarraituko dugu, unibertsitateak komunitateari ematen dion balioa ikusarazteko, aitortzeko eta diruz laguntzeko, kanpoko inbertsioak erakarriz eta tokiko eta eskualdeko garapenean funtsezko eragile gisa duen zeregina indartuz.

## AZPIEGITURAK ETA JASANGARRITASUNA

Etengabe aurreratzen ari den unibertsitatea sustatuko dugu, osasun azpiegitura berriak, ikasteko eta ikertzeko guneak eta jasangarritasunarekiko eta irisgarritasunarekiko konpromisoa dituen, unibertsitateko esperientzia berritzaile eta globala eskaintzeko.

- **Urte Anitzeko Inbertsio Plana:**

- Inbertsiorako Urte Anitzeko Plana gauzatuko dugu egungo azpiegituretan, eta eraikinak eta ekipamenduak berrituko eta eguneratuko ditugu, hautemandako beharren arabera.
- Instalazio zaharrenak modernizatzen jarraituko dugu, eta irakaskuntza, ikerkuntza eta administrazio espazioak hobetuko ditugu, erosotasun eta eraginkortasun estandar modernoak betetzen dituztela ziurtatuz.

- **Birmoldaketa:** Leioa-Erandioko campuseko errektorego eta ikasgeletako plataformak eraisteko obrei ekingo diegu, eta, ondoren, espazio liberatuak urbanizatuko ditugu, aisialdirako espazio osasungarri bihurtzeko.

- **Ostatua:**

- Araban ikasleentzako egoitza berria eraikiko dugu, 230 plaza gehiago sortuz.
- Gipuzkoan egoitza berria eraikitzen hasiko gara, ikasle eta ikertzaileentzat 250 plaza inguruko edukierarekin.
- Leioako eremuan ikasle eta ikertzaileentzako egoitza bultzatuko dugu, 450 eta 500 plaza artekoa.

- **Azpiegitura estrategikoak:**

- Azpiegituretarako aurrekontua bikoiztu egingo dugu, BPGren % 1 lortzearekin batera.
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria eraikitzen jarraituko dugu, eta azpiegitura berriak garatuko dira Araban eta Gipuzkoan, osasunaren arloan prestakuntzarekin eta ikerketarekin dugun konpromisoa are gehiago indartzeko.



- Informatikako Fakultatean berrikuntzarako espazio berriak eraikiko ditugu, adimen artifizialak planteatzen eta proposatzen dituen gizarte, lege, teknologia, ingurumen eta ekonomia arloko erronka konplexuei erantzuteko diziplina anitzeko proiektuak diseinatu eta garatzeko.
- Arabako Campusa kirol azpiegitura berriez hornituko dugu, kirol zientzien arloko irakaskuntza eta ikerketa mailako beharrak asetzeko. Horrez gain, Campus Osasungarria sustatzeko aisialdirako guneak izango dira.
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Leioako espazioan Zientzia Dibulgazioaren eta Iraunkortasunaren Hiria proiektua bultzatuko dugu, Osasun Globalean (*One Health*) ikertzeko eta transferentzia egiteko espazio batekin.
- Gizarte, ekonomiko, juridiko eta artistikoen arloan diziplinarteko ikerketa eta transferentziarako *hub* bat sortuko dugu Zorrozaurre-Sarriko inguruan, herritarrei irekia, arlo horietako ikerketa taldeen diziplinartekotasuna bultzatuz eta lurraldeko erakunde eta entitateekin sinergiak sortzeko.
- **Aire zabaleko espazioak:** campusetan bizitza unibertsitarioa sustatzen duten aire zabaleko espazioak hobetuko ditugu, atsedean hartzeko eta elkartzeko guneak areagotuko ditugu eta kultura eta kirol jarduerak bultzatuko ditugu.
- **Kirol instalazioak:** hiru campusetako kirol instalazioak hobetuko ditugu, espazio eta material egokiak berrituta, pertsona guztientzako kirol jarduera maila desberdinetan sustatzeko programak bultzatzeko.
- **Energia:**
  - Unibertsitateko eraikinen jasangarritasuna eta efizientzia energetikoa sustatzen jarraituko dugu, hala nola energia berriztagarriko sistemak instalatzea (plaka fotovoltaikoak, geotermia, aerotermia, etab.).
  - Berokuntza, argiztapen eta klimatizazio sistemak eta altzariak modernizatzea eta hobetzea sustatuko dugu, energia kontsumoa mugatzeko eta emisioak % 35 baino gehiago murrizteko.
  - Energia erabilera denbora errealean monitorizatzea bultzatuko dugu, kudeaketa optimizatzeke.
  - Kanpusetan ura eraginkortasunez kudeatzeko politikak ezartzen jarraituko dugu, instalazioen modernizazioa sustatuz ur kontsumoa murrizteko eta bainuetan, laborategietan eta kontsumo handiko beste eremu batzuetan ura alferrik ez galtzeko teknologien erabilera sustatuz.

- Autoentzako kargagailu elektrikoak jarriko ditugu campus bakoitzean.
- **Garraioa eta mugikortasuna:**
  - Mugikortasun iraunkorra sustatuko dugu, garraio publikoko konexioak hobetuz, hala nola Leioako metro geltokitik Leioako campusera lanzadera elektrikoko autobus bat abiaraziz.
  - Leioatik campusera bide berde bat sortzea bultzatuko dugu, mugikortasun jasangarria errazteko.
  - Campusetan ibilgailu elektrikoen erabilera erraztuko dugu, ibilgailu horientzako karga estazioak jarriz unibertsitateko aparkalekuetan.
- **Hondakinak:**
  - Murriztapenean, berrerabilpenean eta birziklatzean oinarritutako hondakinak kudeatzeko politika sustatuko dugu campusetan.
  - Erabilera bakarreko plastikoen erabilera murrizteko, instalazio guztietan birziklatze puntuen kopurua handitzeko eta ikasleen eta langileen artean kontsumo arduratsuaren kultura sustatzeko programak ezarriko ditugu.
  - Ekonomia zirkularra bultzatuko dugu ekipoak eta materialak berrerabiliz.
- **Eraikuntza:** eraikuntza berrietan (martxan edo proiektuan daudenak) jasangarritasun estandar altuenak betetzen direla bermatuko dugu. Besteak beste, material ekologikoak, energetikoki eraginkorrak diren diseinuak eta ingurumen inpaktua minimizatzen duten eraikuntza sistemak erabiliko ditugu. Iraunkortasun ziurtagiriak jasotzea bultzatuko dugu, hala nola LEED, UPV/EHUko campusetan egiten diren eraikin berrietarako.
- **Elikadura:**
  - Unibertsitateko ostalaritza establezimenduak eta vending-makinak sustatu eta zainduko ditugu, elikadura premia desberdinetara (beganoak, begetarianoa, etab.) egokitutako kontsumo jasangarria eta osasungarria babestuz, elikagaien xahuketa murriztuz eta ekonomia zirkularra bultzatuz.
  - Janaria berotzeko jantokiak jarriko ditugu hiru campusetan ikasleen beharrei erantzun egokia emateko.
- **Irisgarritasuna:**
  - Irisgarritasun unibertsala bermatuko dugu UPV/EHUko eraikin eta espazio guztietan, eta, premia bereziak dituzten pertsonen sarbidea errazteko, hobekuntzak egingo ditugu.

- Premia bereziak dituzten ikasleen aniztasuna kontuan hartuta, instalazioetarako, prestakuntza baliabideetarako eta ebaluazio probetarako sarbidea ziurtatuko dugu.
- **Klinika Odontologikoa:** beste erakunde batzuekin lankidetzan Klinika Odontologikoaren proiektua abian jarriko dugu Bilbon, eta giza zaurgarritasun egoeran dauden pertsoneri arreta eskaintzearen aldeko apustua egingo dugu.

## EUSKARA

Euskararen sustapena bultzatuko dugu estrategia berritzaileak, praktika sareak, BIKAIN ziurtagiriak, hezkuntza bikaintasuna, koordinazioa, prestakuntza integrala, teknologia berriak eta kalitatezko argitalpenak sustatuz eta doktore tesiak babestuz.

- **Rudeaketa:** Egiturazko egokitzapenak egingo ditugu euskararen kudeaketa eraginkorragoa izateko eta euskararen zeharkakotasuna indartu eta egonkortzeko baliabideak jarriko ditugu.
- **Sustapena eta ezagutza:**
  - Euskara erabili eta ikasteko estrategiak eta ekintzak garatuko ditugu unibertsitate komunitateari bideratuta euskararen erabilera bikoizteko asmoz.
  - Unean uneko beharren arabera aktiba daitekeen plan espezifikoa, malgu eta dinamiko bat diseinatuko dugu, interes bereziko arloetan euskara ikastea errazteko.
  - Ingurune ludiko-sozialean berdinen artean euskara praktikatzeko errazteko sarea sendotuko dugu hainbat eremutan: campus bakoitzean, campusen artean eta nazioartean.
  - Jardunbide egokiak datu bankua sortuko dugu ekimen arrakastatsuekin, euskararen erabilera eta kontzientzia soziolinguistikoa sustatzeko eta ikastetxeen dinamikan jardunbide egokiak integra daitezzen, egoki ikusi ezker.
- **BIKAIN:** BIKAIN ziurtagiria bultzatuko dugu, atal, zerbitzu eta zentroen % 50ek gutxienez ziurtagiria lor dezaten.
- **Bikaintasuna:**
  - Euskararen sakontze aipamena sendotuko dugu, ikasleek hizkuntzaren erabileran eta ezagutza linguistiko zein soziolinguistikoan sakontzeko aukera izan dezaten beraien prestakuntzan zehar.
  - Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta gizartean erreferente izaten jarraitzeko ekintzak indartu eta berrituko ditugu.

- **Koordinazioa:** ikastetxeen arteko koordinazio sarea indartuko dugu, unibertsitate komunitate osoan euskararen euskararen sustapenerako ekintzak bultzatzeko eta partekatuzeko.
- **Prestakuntza:**
  - Euskarazko irakaskuntza areagotuko dugu hizkuntzaren ikuspuntutik eskaintza osoa ez duten Graduetan.
  - Graduoko hizkuntza plangintza osatuko dugu, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan hautazkotasun aukera berdina izan dezaten.
  - Graduondoan eta bizitza osoko hezkuntzan euskarazko irakaskuntza eskaintza handituko dugu.
- **Teknologia berriak:**
  - Kudeaketa administratibo eta akademikorako euskararako teknologia berriak unibertsitate komunitate osoaren esku jarriko ditugu, izapideak errazten eta automatizatzen dituzten sistemen bidez.
  - Erreferenteak izango gara euskarazko tresna digitalen erabileran.
  - Teknologia berrien erabilera pixkanaka ezarriko dugu, aldibereko itzulpen eta interpretazioak errazteko.
- **Argitalpenak:** kalitatezko liburuak eta irakaskuntza materialak euskaraz argitaratzen jarraituko dugu.
- **Doktorego tesiak:** euskarazko doktorego tesiak egiteko laguntzak handituko ditugu.

## KOMUNIKAZIOA

UPV/EHUn komunikazioa eta gardentasuna erraztuko ditugu honakoien bitartez: leihatila bakarra, komunikazio hobea izapideetan, identitatea eta marka sendoa, irisgarritasun digitala, nazio eta nazioarteko ikusgarritasuna, harreman aktiboa komunikabideekin eta etengabeko komunikazioa unibertsitateko komunitatearekin.

- **Komunikazio arina:**
  - Telefono dei guztiek erantzun egokia jaso dezaten zerbitzuei laguntzeko sistema ezarriko dugu, kontsulta ebazteko dei bakoitza zerbitzu egokira bideratua izan dadin.
  - Ekintza zehatzak eta prozedurak ezarriko ditugu ikerketaren kudeaketan funtsezkoak diren zerbitzuen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko, hala nola langileen kudeaketa, kontratazioa eta erosketak, zerbitzu juridikoak eta doktoretza, besteak beste.
  - Pertsoneri eta sailei eskaintzen zaien komunikazioa hobetuko dugu izapide eta prozesu mota guztiak gauzatzean, horiek egoitza elektronikoan integratuz. Horri esker, une oro jakin ahal izango da izapidetzearen zein puntutan dagoen prozesua.
- **Leihatila bakarra:** leihatila bakarra sortuko dugu, unibertsitate komunitatearen eta gobernu taldearen arteko komunikazio zuzena errazteko. Horren bidez, eskaerak, proposamenak, konponbideak eta iritziak modu eraikitzailean aurkeztu ahal izango dira, erabakiak hartzerakoan parte hartze aktiboa eta kolaboratiboa sustatuz.
- **Kudeaketa gardena:**
  - Gardentasun ataria indartuko dugu, argitaratzen den informazioaren tamaina eta mota handituz eta berrerabilera bermatzen duten formatu ez-jabeetan informazio eskuragarria eskainiz.
  - Kudeaketa ekonomiko gardena bermatuko dugu, aurrekontuetarako eta aurrekontuen betearazpenetarako sarbide publikoa izango duena, eta unibertsitate komunitateak eta kanpoko eragileek finantza egoeraren ikuspegi argia eta eguneratua izango dutela ziurtatuko dugu.
  - Arauen zergatiari eta helburuari buruzko komunikazioa hobetuko dugu.

- **Identitatea eta marka:** nortasun eta marka estrategia ezarriko dugu, UPV/EHU esparru akademiko, ikertzaile eta sozialean erreferentziazko unibertsitate gisa kokatzeko. Horren barruan, UPV/EHUK gizarteari egindako ekarpenei, lorpenei eta balioei buruzko narratiba koherente bat sortuko litzateke, bere komunikazio kanal guztien bidez transmitituko litzatekeena.
- **Irisgarritasuna:** unibertsitateko plataforma eta baliabide digital guztiak komunitate osorako irisgarriak izatea ziurtatuko dugu, dibertsitate funtzionala duten pertsonak barne.
- **Ikusgarritasuna:**
  - UPV/EHUri nazioan eta nazioartean ikusgarritasuna emango dioten komunikazio kanpainak abiaraziko ditugu, irakaskuntzaren kalitatea, ikertzeko gaitasuna eta berrikuntzarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa nabarmenduz.
  - Unibertsitate aurreko etapetan pertsonetikiko loturak sustatuko ditugu, jasotzen duten orientazioa hobetzeko, Lau Haizetara edo EGOKITU bezalako ekimenak sustatuz.
- **Komunikabideekiko harremana:**
  - Harreman aktiboa sustatuko dugu tokiko zein nazioarteko komunikabideekin, unibertsitatearen balioak, lorpenak eta jarduerak zabaltzeko.
  - UPV/EHUn garatzen diren aurrerapen zientifikoei, proiektu berritzaileei eta kultura jardueri buruzko eduki garrantzitsua biltzen duten barne komunikazioko taldeak jarriko ditugu martxan informazioa hedabideei zabaltzeko.
- **Etengabeko komunikazioa:**
  - Ikasleen, IRIren eta TEKAZELen keak modu errazean izapidetzeko kanal berria irekiko dugu.
  - Ikastegi guztietara bisitak egingo ditugu ikasle, IRI eta TEKAZEL langileekin biltzeko eta haien iradokizunak, keak etab., zuzenean entzuteko.
  - Unibertsitateak unibertsitate komunitateari eskaintzen dizkion zerbitzuen ikusgarritasuna hobetuko dugu, hala nola, kirolak, kultura, boluntarioak, Klinika Odontologikoa, etab., norbanakoen interesen arabera harpidetu ahal izateko horretarako jarriko ditugun distribuzio zerrenden bitartez.
  - Campusen arteko topaketak antolatuko ditugu ikasle, IRI eta TEKAZELen eta nazioarteko kideen pertenezia sentimendua sustatzeko, elkarlaneko sinergiak sortzeko asmoz, diziplina eta arlo desberdinetako pertsonen topaketak erraztuz.

## NAZIOARTEKOTZEA

Komunitate osoak nazioarteko esperientzia izango du eta gure unibertsitatearen enbaxadore izateko prest egongo da. Modalitate ezberdineko mugikortasunak egiteko aukerak zabalduko ditugu, baita aliantza estrategikoetan parte hartzeko aukerak ere; ingelesezko ibilbideen eskaintza eta hizkuntzen irakaskuntza eta praktika areagotuko ditugu; nazioarteko talentu gero eta handiagoa duten ikasgela, laborategi eta zerbitzuak izango ditugu.

- **Nazioarteko mugikortasuna:**

- Ikasketa luze zein laburretarako (BIP) mugikortasun fisiko eta mistoak sustatuko ditugu, eta ikasleek nazioarteko lankidetzaren proiektuetan parte har dezaten sustatuko dugu.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen mugikortasuna bultzatuko dugu, azpiegitura eta zerbitzu egokituak bermatuko dituzten nazioarteko unibertsitateekin egindako akordioen bidez eta pertsona horien mugikortasunaren arrakasta sustatzeko prestakuntza programa diseinatuko dugu.
- Nazioarteko praktiken programa ezberdinak sustatuko ditugu, hala nola Global Training, EPEZ etab.
- IRlen eta TEKAZELen irakaskuntza eta prestakuntza mugikortasunerako estrategia diseinatuko dugu, ospe handiko estrategikoak diren unibertsitateetan egonaldiak eginez, bereziki ENLIGHTen.
- Irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzen jarraituko dugu, ENLIGHT aliantzaren barruko eta kanpoko irakaskuntza eta ikerketa egonaldien bidez, bai eta nazioarteko sare garrantzitsuetan ere.
- Professionals programa sustatuko dugu, Europako profesionalek beren ezagutza partekatu ahal izan dezaten unibertsitate komunitateko kide guztiekin.
- Euskampusetik lankidetzaren areagotuko dugu interes estrategikoko arloetan nazioartekotze ekintzak bultzatzeko, bereziki Bordeleko Unibertsitatearekin eta Akitania Berria, Nafarroa eta Euskadiko unibertsitateekin.



- TEKAZELen mugikortasuna eta prestakuntza sustatuko dugu nazioarteko testuinguru batean, eta nazioarteko asteetan parte hartzea, trukeak egitea eta atzerriko beste erakunde batzuetara bisitak egitea erraztuko diegu, praktika onak partekatzeko.
- **Nazioartekotzea etxean:**
  - Unibertsitatean bertan nazioartekotzea sustatzeko, graduan eta masterretan ingelesezko nazioarteko ibilbideak sortzea sendotuko dugu, bai eta tokiko ikasleei kulturarteko eta hizkuntza gaitasunak ematea ere.
  - Mugikortasun berde eta jasangarria bultzatuko dugu, ENLIGHT bezalako bazkide estrategikoekin garatutako COIL programen bidez, ikasleei eta IRlei unibertsitatean bertan nazioarteko esperientzia bat izateko aukera eskaintzeko.
- **ENLIGHT partzuergoa:** mugikortasun modu guztiak bultzatuko ditugu -motza eta luzea, formala eta informala, birtuala, hibridoa eta fisikoa-, ikasketa planetan nazioarteko ikaskuntza aukera malguak txertatuta, diziplina guztietako hezkuntza lankidetzarako modu guztiak babesteko eta zabaltzeko.
- **Graduondoko Latinoamerikako Sarea:**
  - Sarea indartuko dugu, alde batetik, graduondoko benetako eskaerari erantzuten dioten titulazioen eskaintza zabalduz, eta, bestetik, Latinoamerikako unibertsitate berriak sartuz.
  - Sarearen esparruan ikerketari eta nazioartekotzeari bultzada berri bat emango diegu, Latinoamerikako unibertsitateekiko lankidetzara bultzatuko duten ikerketa hazitegiak sortuz eta Latinoamerikako eta EHUko unibertsitateetako irakasleen eta ikasleen mugikortasuna sustatuz.
- **Nazioarteko presentzia handitzea:**
  - "Beste Norakoak" programaren mugikortasun eskaintza Kenia, Senegal, Hegoafrika eta Tanzania bezalako herrialdeetara zabalduko dugu, Afrikako herrialderekin harremanak zabaltzeko.
  - Nazioarteko gradu bikoitzak sortzea bultzatuko dugu, Euroeskualdeari arreta berezia eskainiz.
  - Euskal kulturari eta hizkuntzari lotutako herrialdeetan unibertsitatearen erreferentzialtasuna sendotuko dugu, baita euskal diasporarena ere.
  - UPV/EHUren presentzia areagotu eta koordinatuko dugu goi mailako hezkuntzako nazioarteko azoketan, hitzaldi akademikoetan eta berrikuntza ekitaldietan.

- **Nazioarteko lankidetzak:** Garapenerako Lankidetzako Bulegoa eta Errefuxiatuei Harrera emateko programa indartuko ditugu, plantilla handituz eta hiru campusetara zabalduz, ekintzak sustatzeko eta prestakuntza programetan integratzeko.
- **Talentua erakartzea:**
  - Nazioarteko talentua erakartzeko Human Strategy for Researchers (HRS4R) estrategiaren esparruan zehaztutako konpromisoarekin eta ekintza planarekin jarraituko dugu. Estrategia hori ikertzaileen Europako Gutunean eta ikertzaileak kontratatzeke jokabide kodean jasotako printzipioak aplikatzeko diseinatu da.
  - Atzerriko tituluak aitortzeko eta baliokidetzeko prozedura arinak garatuko ditugu, atzerriko ikasleak eta ikertzaileak onartzea, matrikulatzea eta ondoren kontratatzea erraztuz.
  - Nazioarteko talentua erakartzeko eta atxikimendua lortzeko ekintzak indartuko ditugu, euskara, gaztelania eta kulturartekotasunari buruzko ikastaroak eta kultura jarduerak eskainiz, tokiko komunitatearekiko kidetasun sentimendua sortzeko.
  - Nazioarteko talentua unibertsitatean integratzen laguntzeko laguntza eta orientazio zerbitzuak sendotuko ditugu, eta haiei ostaturik bilatzeko erraztasunak ere eskainiko ditugu.
- **Hizkuntzen irakaskuntza:** Hizkuntza ikastaroak eskainiko ditugu hainbat formatutan eta ingelesaren erabilera sustatuko dugu jarduera akademiko eta administratiboetan.
- **Mugikortasunerako app-a:**
  - Aplikazio berria eskainiko dugu, komunitateko kideek beren mugikortasunak erraz eska ditzaten, baita gailu mugikorren bidez ere.
  - Mugikortasunarekin lotutako gai guztien kudeaketa erraztuko dugu aplikazio horren bidez, eta horrek nazioartekotze prozesuak hobetzea ahalbidetuko du.
- **Nazioarteko enbaxadoreak:**
  - Unibertsitateko kideak nazioarteko jardueretan, argitalpenetan eta kolaborazioetan unibertsitatearen enbaxadore gisa jardun dezaten laguntza eta formazioa eskainiko dugu.
  - Unibertsitateko kideek nazioarteko ekitaldi eta plataforma akademikoetan UPV/EHU ordezkatu ahal izateko laguntza eta prestakuntza eskainiko dugu.
- **Nazioartekotzearen aitortza:** IRlek eta TEKAZELEk egindako nazioartekotze ekintzen implementazioa eta inpaktua aitortzeko programa diseinatuko dugu.

## ERALDAKETA DIGITALA

Unibertsitate kudeaketa eraldatuko dugu digitalizazio integralarekin, burokrazia ezabatzearekin, irisgarritasun unibertsalarekin, sortzen ari diren teknologiekkin eta AAKo prestakuntzarekin, prozesu guztietan gardentasuna eta modernizazioa bermatuz.

- **Prozesuak digitalizatzea:** egoitza elektronikoan ahal diren administrazio eta kudeaketa prozesu guztiak ezarriko ditugu, hala nola irakasleen plazak eta ordezkapenak eskatzea eta izapidetzea, ikerketa deialdiak eskatzea edo kudeaketa ekonomikoa izapidetzeko eskatzea, besteak beste. Horrela, jende guztiak jakingo du eskaera bakoitza izapidearen zein puntutan dagoen.
- **Burokraziaren kanpo ebaluazioa:** kanpo ebaluazio independentea egingo dugu egungo kudeaketa prozesuetatik, kendu daitekeen burokrazia detektatzeko eta, horrela, beharrezkoak ez diren oztopoak eta izapideak ezabatzeko.
- **GAUR:** kudeaketa akademikoko sistema moderno, erabilgarri eta irisgarria jarriko dugu abian, egungo premietara egokitua eta etorkizunean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko prestatua.
- **Zerbitzu digitalen plataforma bateratua:** plataforma digital integratua sortuko dugu, unibertsitateak ikasleei, IRlei eta TEKAZELEi eskaintzen dizkien zerbitzu guztietarako sarbidea bateratuko duena. Erabiltzailearen esperientzia lehenetsiko dugu, plataforma intuitiboa eta eskuragarria dela bermatuz.
- **Software libre:**
  - Dokumentazio publikoaren eta izapideak egiteko beharrezkoa den dokumentazioaren % 100a jabetun ez diren formatuetan eskainiko dugu, mugarik gabeko sarbidea eta bateragarritasuna bermatuz, erabiltzen den *softwarea* kontuan hartu gabe.
  - Unibertsitate komunitateari ofimatikarako *software* libreko tresnak erabiltzeko prestakuntza emango diogu, tresna horien erabilera eta adopzioa sustatzeko.
- **Eraldaketa digital integrala:** Unibertsitate komunitate osoarekin batera, UPV/EHUren estrategia digitalaren lehen plana landuko dugu, unibertsitatearen ildo nagusiak bilduko dituen: irakaskuntza, ikerketa eta administrazioa.

- **Prestakuntza:** gaitasun digitaletan eta, bereziki, zibersegurtasunean eta adimen artifizialean prestakuntza sustatuko dugu unibertsitate komunitate osorako: ikasleentzat, IRlentzat eta TEKAZELentzat, tresna teknologikoak modu seguruan erabiltzeko prestakuntza ziurtatuz eta haien potentzial handiena aprobetxatuz.
- **Adimen artifiziala ezartzea:**
  - Unibertsitateko prozesuetan adimen artifizialaren erabilerari buruzko jardunbide egokien gida egingo dugu, erabilera arduratsua eta etikoa ziurtatzeko.
  - Ikasleentzako zein IRlentzako prestakuntza programa abiaraziko dugu, irakatsi eta ikasteko prozesuetan adimen artifizialak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu ahal izateko, ezaugarri eta behar desberdinetara egokituta.
  - TEKAZELei bideratutako prestakuntza espezifiko eskainiko dugu, adimen artifizialari etekina atera diezaioten eguneroko zereginak egitean.
- **Irisgarritasun digitala:** unibertsitateko plataforma eta baliabide digital guztiak komunitate osorako irisgarriak izatea ziurtatuko dugu, desgaitasunak dituzten pertsonak barne. Irisgarritasun unibertsalaren printzipioei jarraituko dieten interfazeen diseinua sustatuko dugu, eta eduki digitaletarako sarbidea hobetuko dugu.
- **Sortzen ari diren teknologien erabilera:** sortzen ari diren teknologien erabilera bultzatuko dugu, hala nola *blockchain*, *wallet* digitalak, errealitate areagotua edo errealitate birtuala administrazioan, irakaskuntzan eta ikerketan, unibertsitatearen modernizazioa indartuz. Ekimen horiei laguntza ekonomikoa emango diegu hainbat deialdiren bidez.
- **Irakasleentzako eta ikertzaileentzako laguntza teknologikoa:** irakasleei eta ikertzaileei tresna teknologiko aurreratuak emango dizkiegu, irakaskuntza eta ekoizpen zientifikoa hobetzeko. Horren barruan sartzen dira sortzen ari diren teknologietan trebatzea, datuak aztertzeke plataformetarako sarbidea, elkarlanerako online tresnak, eta ikerketarako *software* espezializatua erabiltzea. Gainera, irakaskuntzan berrikuntza sustatzen duten teknologien erabilera bultzatuko da.
- **Datuen erabilera eta analitika optimizatzea:** adierazleak lortzea ahalbidetzen duten analitika aurreratuko sistemak inplementatuko ditugu.
- **Kredentzial digitalak:** kredentzial digitalak eskainiko ditugu ikasleek egiten dituzten curriculumetik kanpoko esperientziak jasotzeko. Esperientzia horiek Tituluaren Gehigarri Europarrean erregistratuta geratuko dira.

## BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA GIZARTE KONPROMISIOA

Unibertsitate inklusiboa eta irisgarria sustatuko dugu, diziplina anitzeko proiektuak, aukera berdintasuna, osasuna eta ongizatea, parte hartze aktiboa eta jasangarriatasunarekiko, genero berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko konpromisoa dituen.

- **GRALak eta MALak:** ikasleei gizarte erronkekin lotutako diziplina anitzeko proiektuetan GRALak eta MALak egiteko aukera bermatuko diegu.
- **Aniztasuna eta aukera berdintasuna sustatzea:** unibertsitate bizitzaren eremu guztietan aniztasuna sustatuko dugu, aukera berberak bermatuz, generoa, jatorria, etnia, sexu orientazioa edo identitatea, sinesmenak edo dibertsitate funtzionala edozein izanda ere. Politika aktiboak ezarriko ditugu unibertsitatean hezkuntzarako, ikerketarako eta enplegurako sarbide berdintasuna bermatzeko.
- **Irisgarritasun unibertsala campusetan:** oztopo arkitektonikoak kentzeko eta UPV/EHUko azpiegitura eta zerbitzu guztiak desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak direla ziurtatzeko lan egingo dugu.
- **Irisgarritasun digitala:** unibertsitateko plataforma eta baliabide digital guztiak komunitate osorako irisgarriak izatea ziurtatuko dugu, desgaitasuna duten pertsonak barne. Irisgarritasun unibertsalaren printzipioei jarraituko dieten interfazeen diseinua sustatuko dugu, eta eduki digitaletarako sarbidea hobetuko dugu.
- **Campusak biziberritzea:** kultura, kirola eta teknologia ikasleen eguneroko bizitzan txertatuta dauden campus biziak, inklusiboak eta dinamikoak sustatuko ditugu.
- **Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH):** ikerketa taldeak inplikatuko ditugu ezagutza sortzen eta zabaltzen, GJHekin bat etorritik.
- **Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua:** zerbitzuaren izena aldatuko dugu bere jardun eremua zabaltzeko (Behar Espezifikoak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua).

- **Berdintasunerako Zuzendaritza:** plantilla handitu eta hiru campusetara zabalduko dugu.
- **Lidergo ereduak aldatzea:** gobernantza eta ordezkaritza maila guztietan lidergo kooperatibo eta inklusiboaren ereduak aldatzea lortuko dugu, genero estereotipo eta roletan oinarritutako ereduak gaindituz.
- **Osasunari eta ongizate psikologikoari erantzuteko arreta:**
  - Arreta Psikologikorako Zerbitzua zabalduko dugu, finantzaketa egokia eta langile hornidura bermatuz, unibertsitate komunitateko kolektiboari behar bezala arreta eman diezaieten.
  - Osasun mentala eta kudeaketa trebetasunak sustatzen dituzten ikastaroak eskainiko ditugu.
- **Irakaskuntzan inklusioa sustatzea:** irakasleak gaituko ditugu, eta hezkuntza metodoak eta baliabideak egokitzea bultzatuko dugu, ikasleen aniztasuna aintzat hartzen duen ikuspegia sustatuaz.
- **Zailtasunak dituzten ikasleentzako ikasketak malgutzea:** zailtasun pertsonalak edo lanekoak dituzten ikasleei malgutetasun akademikoa eskainiko dieten mekanismoak eskainiko ditugu. Besteak beste, irakastorduek doitzeko aukera, lanak entregatzeko epeak luzatu edo eskolak online modalitatean jasotzeko aukerak eskainiko ditugu.
- **Elkartasuna eta boluntarioritza sustatzea:**
  - Ikasleen parte hartze aktiboa bultzatuko dugu boluntarioritza eta elkartasun proiektuetan, campus barruan zein kanpoan, gizarte konpromisoa sustatzeko modu gisa.
  - BAT programa bezalako ekimenak sendotu eta zabalduko ditugu, ikasleek unibertsitateko eta tokiko komunitatearen ongizateari lagun diezaioten, eta, aldi berean, lidergo trebetasunak, talde lana eta enpatia garatuz.
- **Belaunaldien arteko proiektuak:** belaunaldien arteko proiektuak abiaraziko ditugu esperientzia geletako ikasleen eta beste graduatetako ikasleen artean.
- **Gune seguruak eta errespetuzkoak sortzea:**
  - Jazarpenik, diskriminaziorik edo indarkeriarik gabeko unibertsitate giro segurua sustatuko duten politikak garatuko ditugu.
  - Sentsibilizazio eta prebentzio programak abiaraziko ditugu genero berdintasunaren, aniztasunarekiko errespetuaren eta bizikidetzaren arloan, eta salaketa bide irisgarriak eta konfidentzialak ezarriko ditugu edozein gertakarirentzat.

- **Zaurgarritasun egoeran dauden ikasleentzako laguntza programak sortzea:** laguntza ekonomiko eta akademikoko programak bultzatuko ditugu zaurgarritasun egoeran dauden ikasleentzat, hala nola diru sarrera txikiak dituzten familietatik datozenentzat, familia erantzukizunei aurre egiten dietenentzat edo migratzaile edo errefuxiatu direnentzat.
- **Ostatua:**
  - Ostatu aukerak inklusiboak eta irisgarriak izan daitezen lan egingo dugu, bereziki premia bereziak edo zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat.
  - Belaunaldien arteko ostatu programa pilotua jarriko dugu abian, Esperientzia Geletako ikasleek UPV/EHUko ikasleekin etxebizitza partekatu ahal izan dezaten.
  - Etxebizitza solidarioen programa indartu eta zabalduko dugu hiru campusetan.
- **Unibertsitate gobernantzan parte hartze aktiboa sustatzea:**
  - Unibertsitate komunitateko kide guztien parte hartzea sustatuko dugu erabakiak hartzeko prozesuetan.
  - Ordezkaritza inklusiboa bultzatuko dugu unibertsitateko gobernantza organoetan, kolektibo zaurgarrien edo ordezkaritza txikiagoa duten kolektiboen ahotsek entzunak izan daitezen eta unibertsitate politiken eraikuntzan parte hartzeko espazioa izan dezaten ziurtatuz.
- **Lana eta familia bateragarri egitea:**
  - Ikasleen, IRlen eta TEKAZELen lan bizi, bizitza akademikoa eta familia bizi uztartzeko neurriak ezarriko ditugu.
  - IRlentzako eta TEKAZELentzako gizarte funtsa hobetuko dugu, arreta berezia eskainiz jaiotzagatiko, haurtzaindegizatiko, eskola materialagatiko eta mendeko pertsonen zaintzagatiko laguntzei.
- **2030 Agendatik haratago:** 2030 Agendatik haratago igartzeko eztabaida eta hausnarketa sustatuko dugu, eta datozen urteetarako lehentasunezko jarduerak eta helburu nagusiak ezarriko ditugu.

***evaferreira.eus***

***2025 - 2030***

***Aniztasunean***

***hazten***

***#ehuntzen***